

# GOIERRIKO HITZAK ETA GOIBERRIK MARKETIN ARDURADUNA BEHAR DUTE

(Erref.: MARKETIN-2024)

Hitzakideen Komunitatea eta sustapena landuko dituen eta GOERRIKO HITZAren eta GOIBERRIren markaz eta HITZAKideen kaptazio eta fidelizazioaz arduratuko den pertsona baten bila gabiltza.

## Eskatzen da:

- Administrazio eta Enpresa Zuzendaritza, Publizitatea eta Harreman Publikoak, Marketin arloko unibertsitate ikasketak edo antzekoak izatea.
- Marketin arloko ezagutza espezifikoak (social media marketina, email marketina, analitika eta neurketa tresnak).
- Marketin eta sustapen lanetan eskarmentua izatea.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako eta talde lanerako gaitasuna.
- Gutxienez EGA edo baliokidea den euskara maila.
- Eskualdean bizi edo ingurua ongi ezagutzea.
- Gidabaimena eta autoa izatea.

## Eskaintzen da:

- Lanaldi osoko ordezkapen kontratua.
- Berehala lanean hastea.
- Lantokia Beasainen.

Interesa duenak bidali CV [gh@hitza.eus](mailto:gh@hitza.eus) posta elektronikora, MARKETIN-2024 erreferentzia zehaztuz,  
**2024ko maiatzaren 24a baino lehen.**